



Comunidades Cristianas Fe y Justicia
Fede eta Justizia Kristau Komunitateen Elkarte

KONPROMISO POLITIKOA

Bilbao, 2003ko urtarrilaren 13a.



1. KONPROMISO ETA POLITIKA HITZAK

1.1 Konpromisoak pertsona eta bere bizitzari osotasunean eragiten dio. Fedeak bezala, ez du zatiketa egonkorrik onartzen. Bizitzako zentzuaren ideiarekin harremanetan dago pertsonetikiko lokarri morala eta solidarioa bezala. Konpromisoa, fedearen adierazpen praktikoa bezala, ekintza zehatzak orekatu eta integratzera gonbidatzen gaitu, bizitzari koherentzia emanez.

1.2 Politika hitza bere esanahirik zabalen eta noblean ulertzen dugu arazo publikoek arduratzen den ekintza edo jarrera bezala. Politika talde bizitzan parte hartzeko edozein ekintza da eta bizitzako egiturei eragiten die. Hau ez da ekintza egiten duen lekuaren arabera (partidua, sindikatu, instituzio, elkarte, etab). Politika horrela ulertzen badugu, soziopolitikaren antzekoa da eta egitura du helburutzat. Gure ustetan, arrazionaltasun kritikoaren eskaera da eta Jainkoaren Erreinuaren aukeran sustraiak ditu.

1.3 Gure ekintza gidatzen duten printzipio moralak justiziaren etikan oinarritzen dira. Lagun hurkoaz arduratzen gara eta harreman honi zentzu politikoa ematen diogu. Ekintza politikoa gidatzen duen arduraren etikak esan nahi du bakoitza ez dela bere bizitzaz bakarrik arduratzen gizaki guztiez baizik. Beraz, gizartearen eraiketan parte hartzeko beharra dugu. Bizitza publikoaren kudeaketa eskubideaz gain betebeharrak morala ere bada. Hau da, eremu publikoan, denok banatzen dugunean, zer den ona erabakitzea.

2. PUNTU NAGUSIAK

Gure nortasunaren ezaugarri garrantzizkoenak azpimarratu nahi ditugu. Hauek Fedea eta Justizia elkartearen historian zehar azalduak izan dira militantzia politikoari buruzko agirietan zein bizitako esperientzia pertsonaletan.

Mundua eta historia

2.1. Jesusen jainkoa historian azaltzen da eta bertatik deitu egiten digu. Hau dela eta, esperientzia erlijioso kristaua mundua eta historiari estuki lotuta dago Jainkoaren erreinuak bertan jaio, hazi eta pairatzen baitu. Jainkoarekin elkargunea gizakiaren esistentzia pertsonala eta taldekoa da.



Honek esan nahi du mundua eta historia ekintza politikorako lekua dela eta espiritualtasun kristau haragituaren iturri dela. Idei hau fedean oinarritzen da eta Kontzilio Vatikanoko II.ak azpimarratua izan da.

Kristauak bezala, Jainkoaren deiari leialtasunez baino ezin dugu erantzun eta honetarako errealitate historikoarekin harreman zintzoa eduki behar dugu. Hau da, errealitateaz arduratuz eta gure gain hartuz.

Behartsuak eta justizia

2.2 Behartsuen aukera fedea kristauaren muinari dagokio. Ebanjelioaren irakurketak eta Jesusen begiespenak ez dute zalantza izpirik uzten. Aukera honek baztertuen, ahulen, zapalduen alde jartzea eta mundu zuzenago eta solidarioaren alde lan egitea dakar.

Behartsuen aukera arrazionala da baina gizarteko eta elizako arlo askoren logika menperatzailearen aurkakoa da.

Behartsuen aukerak, zentzu ebanjelikoan, gure militantzia gidatu behar du baina ekintza bideratzeko gizartearen analisia onartzen du. Behartsuen aukerak gure helburua zehazten du, justizia egitea, hau da, pertsonen eskubideak bermatzea. Gure konpromisoak desberdintasun sozial egoerak aldatzeko ahalmena du.

Egitura

2.3. Egiturak aldarazten dituzten ekintza sozialetan murgildu nahi dugu. "Egitura" hitzarekin injustiziako egoerak sortarazten dituzten iturrietara jo behar dela esan nahi dugu. Egitura hitzak gizartearen izaera konplexuari, hau da, bizitza-taldea osatzen duten harreman, interes eta elkartearen sareari egiten dio erreferentzia. Honen ondorioz, irizpide kristauarekin egiten diren gizartearen aldaketarako ekintzak dimentsio hau aintzat hartu beharrean daude.

Giza bitartekariak

2.4. Fedeak ez du gizartearen eraldaketarako bitarteko eta baliabide zehatzik. Arrazionaltasun zientifikoaren zein gizartearen bitartekotza beharrezkoak dira eraldaketa hau gertatuko bada. Kristauak bezala, munduaren autonomia eta ontasuna eta gizartearen onarturiko bitartekotza soziopolitikorako bideak. Baloratzeaz gain erabili ere egiten ditugu, Jainkoaren erreinuak mundua haien beharra baitu.



Legamia izatea

2.5. Ezin dugu ahantzi “gure elkarteko punturik komunena legamia dela Jesusengan haragitua Jainkoaren Erreinuaren legamia bezala”. Izen horretako parabolaren bere bizitza eta esperientziaren isla dakusagu eta irakaspena elizako eta kristauen izaera eta eginkizunaren inguruan munduan” (E3). Justiziaren aldeko konpromiso politikoaz mintzatzean, hartzigarri izateak munduaren muinean egotea esan nahi du. “Batik bat, gizakiarentzat garrantzitsuak diren balore eta interesak kolokan dauden kasuetan” eta beste pertsona eta taldeekin lan egitea. Legamiaren zentzua orearekin nahastean, eta hartitzean datza.

3. GURE EKINTZA SOZIOPOLITIKORAKO IRIZPIDEAK

Militantzia kontzeptua

3.1. Militantziak, gure konpromiso kristauaren ekintza zehatzak bezala, izaera borondate pertsonala behar du. Militantzia izaera zehatza da, pertsona mota bat behartsuen kausa eta justiziarena bereganatzean, erantzun konprometituak eta koherenteak eskaintzen ditu. Konpromiso kristaua edo militantzia ez da bizitza kristauaren gehigarria. Ez da ezta elkarte batean ematen den denbora tarte mugatua (borondatezko ekintza). Pertsonaren osotasunari eta bizitza osoari eragiten dio. Osotasuna ematen digu. Izaera militanteaz hitz egitea zuzenagoa da, hau da, ekintza zehatz eta mugatutik pasa eta bizitza osotasunean busti egin behar da aldaketa helburuarekin.

Baieztapen honek ondorio bat du: gure militantzia garapen pertsonala bezala ulertu behar dugula. Garapen honetan, indarra irabazten goaz eta gure ahalmenak eskuzabaltasunez areagotu aldaketa sozialean laguntzeko.

Testuinguru soziala

3.2. Azken urteotan kezkatu izan gaituen hausnarketa Estatutuen arabera ontzat hartzen diren elkarteak zeintzuk diren izan da. Zalantza izan da Non egon behar dugu? Testuinguru sozialari buruzko ideia batzuek galdera honi erantzuten laguntzen digute.

Lehenengo eta behin, politikaren kontzeptuak, hiritarren bizitza publikoa bete eta egituretan eragiten duen arloa bezala ikusita, arlo anitzetan ekiteko aukerak ematen ditu.



Bigarrenik, gizarte konplexuan bizi gara eta anitza kulturaren ikuspuntutik eta botere gune askotakoa. Gizartearen eraldaketak bizitza ekonomikoari eragiten dio (ekoizpena eta ondasunen trukaketa) bizitza politikoari (demokrazia eta eskubide unibertsalak) eta bizitza sozialari (kultura arloa, iritzi publikoa, nortasunaren sormena). Errealitateko arlo hauek estuki harremanetan daude. Nahiz eta logika ekonomiko nagusia harreman sozial desberdinen eta egitura ez zuzenen sortzailea izan. Honela izanik, komunikabideak oso ahaltsuak dira baloreak sortarazten eta honek gaur egungo gizartearen sormenean arlo honek duen garrantzia erakusten du. Egoera honetatik ondorioztatzen da, alde batetik, instituzioen lanak Estatuaren administrazioari dagokionez ez da hain eraginkorra aldaketa sozialaren arloan duela 20 urte bezala. Bestalde, Estatu demokratikoa giza eskubideak berma ditzakeen bakarra da (irizpide ekonomikoetan ez oinarrituta) eta, beraz, kapitalismo ekonomiko eta teknologikoaren garapenak sortutako bazterketa sozialaren mugak jar ditzakeen bakarra.

Hirugarrenik, krisi moralean gaudela uste dugu Mendebaldeko ohitura liberalean sustrai historiko eta sozialak dituen. Logika ekonomizista edo materialista eta banakoen interesak komunitatearen interesen gainean egotean dago arazo honen iturria. Ez gara hiritarren gizartean bizi, baizik eta ase dauden kontsumitzaileen gizartean.

Baliabide moralak eta gizartea bultzatzeko behar handiak norabide honetan doazen gune eta eskuhartzeak onesten ditugu.

Parte-hartze sailak

3.3. Ekintza politikoaren lehenetsuneko gunea Estatua eta Administrazioaren antolaketari zuzenean eragiten diona da. Bertan, parte hartzeko bide instituzionalak erabiltzen dira. Hemen alderdi politikoak zein sindikatuen ahaleginak kokatzen dira demokraziaren garapenerako ezinbesteko lana egiten baitute.

Alderdi politikoak ekintza politikoa zuzentzen duten elkarteak direla uste dugu. Gizartea eta Estatuaren arteko bitarteko nagusia izanik. Hiritarrek parte hartzeko bide bat dira eta ordezkariak bideratzen dute. Botere publikoa eskuratu eta kudeatzeko bidea dira. Hiritarren iritzian eragiten dute eta iritzi, interes, gatazka eta proiektuak bideratzen dituzte. Estatua kudeatzeko proiektuen sorgunea da gizartearen artikulazioaren bidez eta baita ideiak artikulatzeko gunea. Ordezkatzeko eta parte hartzeko bitarteko bezala, ordezkariak, karguak eta kudeatzaileak eskaintzen dituzte. Giza eskubide, askatasun eta oinarri demokratikoaren bermatzaileak eta zaintzaileak izan behar dira.



Sindikatuak politika arloan soldata jasotzen duten hiritarrak ordezkatzeko dituzten elkarteak gara. Banakoaren berdintasuna eta eskubide sozialak bultzatzen dituzte diruaren banaketa zuzenagoa bultzatuz. Lan arloa bideratzen duten politika publikoak bultzatzen eta honela bihozberagoak diren ekoizpen prozesu erduetarantz goaz. Lanpostuak eta lan merkatua orekatzen duten politika ekonomiketan eskua sartzen dute. Lan harremanen arautzea enpresari eta Estatuaren artean ordezkariak mintzaideak dira.

3.4. Halere, alderdi politikoak eta sindikatuak ordezkapen arloan krisi larrian daude. Hiritarren aldetik konfiantza galdu dute eta gizartearekiko harremanak hautsi dira batzuetan.

Egun gizarte konplexuan bizi gara eta bertan ez dago muga sozial argirik eta erdiko maila sozialak politikaren joerak erabakitzen dituzte. Boterea eskuratzeko grinak alderdi politikoak bultzatu ditu aldaketa iraultzaileak baztertzerantz hiritar gehiagori zuzentzeko. Bestalde, sindikatuen oinarri soziala ez dator bat lan merkatuan baztertuen daudenekin.

Oso hierarkizatuta eta burokratizatuta daude gizartearen eskaeren adierazpiderako bitartekari lana alde batera uzten ari direnak. Honela, bidea baino helburu bihurtzeko arriskutan daude. Azkenik, komunikabideek eragin handia dute hiritarren iritzia sortu eta botoa erabakitzeko unean. Honek alderdi politikoaren funtsezko lana hautsi du. Krisi honen alde handi bat sindikatuetan islatzen da.

Hau honela izanik ere, eta horrexegatik gainera, alderdi politiko zein sindikatuak eskaintzen duten egituren aldaketarako ahalmena baloratzen dugu.

3.5. Demokrazia helduen ezaugarrietako bat gizarte zibilaren bizitasuna da. Honen barruan elkarte eta ekimenak daude Estatuarekiko autonomia eta askatasun maila altuarekin jaio eta garatzen direnak. Hauen artean ditugu; merkatu ekimena, iritzi publikoa, hirugarren sektorea (Irabazi asmorik gabeko elkarteak), mugimendu sozialak edo hiritarren beste elkarteak (Gobernuz Kanpoko Erakundeak, GKEak) helburu anitzekin zabaltzen ari direnak.

Gizarte zibila da eta historikoki izan da beste maila batzuk (instituzionala, Administrazioa, politika, merkatua, ekonomia) sortu dituen gunea. Gizarte zibilean banakoak sare sozialetan antolatzen dira eta honela talde nortasunak sortzen dira baita ekintza soziala eta politikarako ahalmena duten izaki politikoak sortzen dira bertan. Gizarte zibilaren sormen ahalmena onesten dugu demokrazia zabaltzen lagundu eta herritarrek parte hartzeko bidea eskaintzen duen heinean.



Historiako epe honetan, bizitza publikoan parte hartzeko bide garrantzitsuak dira. Mendebaldeko demokrazietan eta ordezkariak xedea duten alderdi politikoetan dagoen Estatu sozialaren krisia dela eta, gizarte zibila indar handiarekin azaleratzen da. Arlo honetan jaiotzen diren ekimena asko Estatu (instituzioak) eta hiritarren beharren arteko bitartekari lana egiteko asmoz.

3.6. Mugimendu eta elkarte hauetan parte hartzea mugatuta dago aldaketa sozialean eduki dezakeen eraginean. Antolaketaren aldetik, euren dimentsio txikia, sakabanaketa, egonkortasun eta luzaroan irauterik eza dela eta, ahultasunak dituzte. Ideologiaren aldetik, korporatibismoan eror daitezke ideologia artikulazio ideologiko urria eta bere eskaeren zatiketarik. Zatika eta eraginkortasun politiko txikiaz lan egiteko arriskua dute. Mugimendu eta elkarte zibilen anbiguotasunez adi egon behar da helburu solidarioak edukitzeko itxura erakutsi arren, helburu utilitaristak eduki ditzaketelako.

3.7. Elkarte politiko eta sindikalisten egitura izaera duten bezala, gizarte zibilaren erakunde multzoak helburu anitzak ditu. Gizarte zibilean, batik bat, aldaketa sozialak sortzen direla eta subjektu politikoak artikulatzen direla uste dugu. Arlo honetan dugun parte hartzeak izaera militantea du berrikuntza xedea duten elkarte edo erakundeetan lan egiten dugunean. Eraldaketarako iradokizunak eginez zalantzak sortze dituztenean eta errealitate sozialean zuloak sortzen dituztenean.

Gizarte zibilean helburua burujabetzarekin sortzen den edozein elkarten dimentsio politikoa dauka. Botere harremanen orekan aldaketa sortzen du eta.

Hau erdiesteko, alderdien politika eta Estatuaren egiturekin harreman zuzena behar da pertsonen oinarritzko eskubideak bermatzeko.

3.8. Gure tradizioari jarraituz, alderdi politiko eta sindikatuaren militantziaren garrantzia azpimarratzen dugu. Era berean, gaur eguneko sistema demokratikoetan gertatzen ari diren aldaketak aintzat harturik, aldaketa politiko zein kulturala helburutzar duten mugimendu sozialean eta gizarte zibileko elkarteetan militantea izatea onesten dugu.



4. MILITANTZIA SOZIOPOLITIKOAN NOLA EGON

4.1 Gure gizartea konplexua da eta bizitza ekonomikoa, soziala eta politikoa harremanetan daude, beraz, ezin da egiturazko aldaketa politiko instituzional arlora murriztu. Aldaketa sozialaren ikuspegi mekanizista gainditu behar da. Gizartearen kontraesanak arlo anitzetan sortzen dira eta, beraz, erantzunak anitzak izan behar dira. Horregatik, garrantzitsuagoa da definitzea bizitza soziopolitikoari nola ekitea nondik ekitea baino.

Gure ekintza politikorako gida bezala ondorengo irizpideak iradokitzen ditugu:

4.2. Politikaren benetako betebeharrak izaera morala du gizartearen eraikuntzan. Testuinguru honetan, ekintza politikoak, Estatuak eta gizarte zibilak bultzatuta, gizarteari baliabide moralak eman behar dizkio. Honela, gaur eguneko utilitarismo zekenetik datorren “asetako kontsumitzaileen” gizartea gainditzeko. Ez da nahikoa borondate onez eta altruismoz gizarte erakundeetan eta politikan parte hartzea. Gure ekintzaren xedea da ongizate publikoko jarrera etikoa bermatzen duten egiturak arautzea eta instituzionalizatzea.

4.3. Gure militantziako helburu nahitaezkoa (behartsuen aukeratik jaiotzen dena) eskubide unibertsalak (norbanako eskubideak: askatasuna eta berdintasuna, eskubide sozialak: bizimaila duina) ezartzea da. Bizitza publikoa kudeatzeko parte hartzeak denok lortu ditzakegun gutxieneko eskubideak ezarri behar ditu eta Estatuari eskubide hauek betearazi behar zaizkio. Printzipio hauek Mendebaldeko gizartean adostutako gutxienekoen etikaren barruan daude.

4.4. Erreferentzi markoak eta begirada zabaltzen duten eta aukerak apurtzen dituzten mintzaldiak sortu eta zabaltzeko konpromisoa gureganatzen dugu. Gaur eguneko sistemaren mugak zabaltzeko helburuarekin soziopolitikoki tartean sartu behar gara.

Baieztapen honetatik ondorioztatzen da:

- a) Gure ekintza soziopolitiko mintzaldi politiko edo erretoriko batean kokatu behar da. Honek helburu utopikoa edukiko du eta errealitatea interpretatuko du. Gainera, errealitateari esangura emango dio eta sistemaren mugak gaindituko ditu. Borondatezko lan hutsa eta egitea egitearren ekiditu behar dugu.



- b) Helburu hau lortzeko lagungarriak diren errealitateko aldean inguruan hausnarketa egin (ezagupena sortuz, iritzia sortuz, ideiak zabalduz) eta analizatzeko ekintzak indartu egin behar dira.
- c) Pentsamendu kritikorako ideologia heziketa (ez bakarrik tekniko) eta garapenezkoa bultzatu behar da.Honetarako gure esku dauden baliabideak erabiliko ditugu:

4.5. Mundura zabal daitezkeen eta gehiengoaren esku dauden gizartea aldatzeko iradokizunak egiteko konpromisoa hartzen dugu. Ekintza soziala aldaketak egiteko gai izango bada, banakoen pentsamolde eta sinesmenekin bat egin behar du. Baita euren esperientzia, balore, sentimendu, gehiengoaren bizipenekin, justizi, ontasuna eta gaiztakeria ulertzeko erarekin. Errealitatetik hasi behar da, posibleak diren iradokizunak bultzatu eta ez erori garbizalekerietan.

4.6. Parte hartzeko esperientziari ekintzaren ondorioari besteko garrantzia eman behar diogu. Parte hartzeko kultura politikoa sortu behar da. Parte hartzeko kultura politikoa sortu beharrean gaude (hiritartasunaren sorkuntza) indibiduoek aldaketarako gai direla ohar daitezen. Konpromiso politikoaren helburua guztion parte hartzea lortzea da ekonomia eta gizarteko politika nola antolatu erabakitzen.

4.7. Gure ekintza soziopolitikoak politikoki adierazten den gehiengoaren adostasuna kontuan hartu behar du eta euren heziketa demokratikoa. Honek dakar, alde batetik, interesak, ideiak, artikulatzea eta gizarte eredu baten iradokizunak ezartzea eta bestetik, gutxiengoaren eskaerak zabaltzea. Gehiengo politiko eraginkorrak eraiki behar ditugu eta politika eta merkataritza mailekin harremanak sortzea.

5. MILITANTZIA PROZESUAK

5.1.Militante jarrera honek zehaztapen anitzak eduki ditzake gure interes, heziketa, bizitza ziklo eta komunitateko arduren arabera. Ikuspuntu honetatik, eta gizartearen konplexutasuna aintzat harturik, ibilbideak oso desberdinak izan daitezke. Gakoa da heziketa, lana, pertsonen arteko harremanak eta borondatezko lanaren sinergia. Ondo erabiltzea. Norberak lortuko duen eragina honen arabera izango da.



5.2. Zentzu honetan, gure militantzia leku naturaletan garatzen de, hau da, izaera publikoko lekuak gure eguneroko bizitza garatzen den tokietan. Denok, gehiago edo gutxiago hiru sailotan parte hartzen dugu: ekonomian(ekoizle eta kontsumitzaile bezala), politikan (Hautesle, alderdi politikoetako bazkide edo militanteak bezala) eta bizitza sozialean (senide, auzokide, ikasle, solidaritate ekimenak, komunitate honetako kideak bezala).

Soziopolitikoan parte hartzeko leku naturalek duten garrantzia ez da ahaleginak ekonomizatzeagatik bakarrik baizik eta lekua berez garrantzitsua da bertan esperientziak eta nortasuna gara baitaiteke. Leku hauetan era zuzenago batean hiritar bihurtzen gara , bizitza publikoan parte hartzen dutenak. Zentzu honetan, militantziaren esperientzia sortzen dituen aldaketak bezain garrantzitsua da.

5.3. Elkarte zibiletan parte hartzeak hiritartasunean hezten gaitu demokrazia osasuntsua eraikiz. Elkarte hauetan borondatez gure denbora ematea bide ona da militante jarrera lortzeko eta gure begirada politikoa hezteko eta utilitaristak ez diren egitura sozialak eraikitzen ikasteko.

5.4. Askok aldaketa soziala lortzen ahalbidetzen gaituen heziketa eta lanbideak ditugu. Bizitzako arlo honek denbora eta ardura handia eskatzen digu baina informazioa, ezagupenak, trebetasunak, laguntza sareak, etab ere ematen dizkigu bueltan. Honegatik, aproposa da aldaketa soziopolitikoak lortzeko ekintzak eta ekimenak hasteko.

5.5. Estatu demokratikoak oinarritzko eskubideak ondoen bermatzen dituen erakundea dela baieztatzen dugun heinean, militantzia politikaren erakunde izaerarekin harreman estuan egon behar dela diogu. Hau dela eta, ezinbestekoa da betebeharrak eta helburu hau oso argi duten elkarteetan parte hartzea.

5.6. Ez dugu ahanzi behar gure militantziaren helburua dela egitura berriak sortzea edo zaharrak eraldatzea leku naturaletatik. Honela, ibilbide pertsonalean nahiz komunitarioan hobetuz joango gara gero eta eraginkorragoak diren konpromiso politiko-estrukturaletan.

Bilbao, 2002ko abenduaren 2a.



GURE MILITANTZIARAKO PLANIFIKAZIO IRIZPIDEAK

1. Gure nortasunari erlazionatutako helburuen definizioa

Konpromiso politikoa erabakitzeko unean bizitza proiektuan azaldutako eta taldean eztabaidatutako helburuak kontuan hartu behar dira. Helburu hauek arlo desberdinetan batera gara daitezke.

Helburuak ezartzean militantzia ibilbidea kontuan hartuko da: parte hartutako arloak edo lekuak, lortutako esperientzia eta emandako denbora eta gauden bizitzako unea. Komenigarria da, honetaz gain, INPLIKAZIOA hazten edo gutxitzen ari den, gelditurik gauden edo ez. Militantzia TALANTEA da, erantzun multzoa koherenteak eta konpromisozkoak aldaketa helburutzat dutenak. (Konpromiso Politikoa 4.1. atala). Honegatik, bizitzako edozein egoeratan sormena lan dezakegu eta bizitza sozio politikoan parte hartu ahal dugu.

Ez gara haziko elkarte zehatz baten kokatuz, baizik eta gizarteko zer aldaketatan lagundu nahi dugun gure nortasun pertsonala eta komunitarioaren arabera.

2. Gure ekintzaren sailak AMBITO

Helburuak zehaztuta, ARLOAK zehaztuko ditugu (elkarteak, ENTITATEAK, KOLEKTIBOAK, etab) norberak bere ekintza bideratzeko. Helburuak eta elkartearen artean koherentzia egon behar da helburuak lortzeko elkarteak bitartekorik nagusienak dira eta. Pertsonok elkarte batean buru belarri gabiltzanean, komenigarria da gure helburuak eta elkartekoak funtsezko gauzetan bat etortzea.

Gizartearen konplexutasuna dela eta (botere gune anitzak) aldaketa sozialak eta egiturazkoak lortzeko helburu bakarra ARLO anitzetatik lan daiteke. (Konpromiso Politikoa, 4.2.):

- a) Elkartearen ikuspuntutik gizartea zibilean eta alderdi politikoetan ekintzak BANATZEA ALTERNAR. Gizarte zibilean mugimendu soziala, aldaketarako kontzientzia, interesen ARTIKULAZIOA garatzen dira eta politikan araudi eta instituzioen aldaketa eta botere harremanak. Arestian aipatutakoa jakinda, gure nortasun komunitariotik bizitzako uneren batean alderdi politikoetara igarotzea komenigarria da.



- b) Militantziaren eraginkortasunaren ikuspuntutik, lanpostuetan (Konpromiso Politikoa, 6.1. eta 6.4.) dugun espezialitate eta heziketaren arabera egituren aldaketa desberdinak bultzatzen ditugu. Parte hartzeko era hau lanpostu bihur daiteke. Edozein modutan, borondatezkoa edo lanbidea izanda, gure ekintza militantea behartsuenen aldeko aldaketa sozialari begira egin behar da.

Ondorio bezala, elkarteak bitarteko hutsak dira eta bertan era koherentean parte hartu behar dugu. Ekintza militanteak (aldaketa sozialekoak) elkarte batean edo gehiagotan egin daitezke, SINERGIAK elkartuz.

3. Implikazio politikoa

Ekintza militantea antolatu eta ebaluatzeko, norberak bizitzako arlo desberdinetarako eskaintzen dituen baliabideak kontuan hartu behar dira. Baliabideak zehaztean bizitzako arlo honek lehentasuna duen erabakitzen dugu. Militantzia bizitzako egitasmoari zentzua emateko funtsezkoa da. Militantzia elkarte batean astero emandako ordu batzuk besterik ez izatea saihestu behar da.

Espiritualtasunean bezala, politikan dugun parte hartzea neurtu nahi dugunean, kantitatea eta kalitatea neurtzen duten INDICADORES kontuan hartu behar dira:

- a) Ekintza politikoa prestatzeko, burutzeko eta ebaluatzeko emandako denbora.
- b) Parte hartzen dugun arloetan harturiko ardurak.
- c) Aldaketa sozialerako gure ekintzaren zentzua berritzeko heziketa eta hausnarketa. (Konpromiso Politikoa, 5.4. atala).
- d) Heziketa, elkarte, ingurune soziala, laboralaren arteko elkarguneak.

4. Gizartearen eraldaketaren eragina

Gure konpromiso soziopolitikoaren ezaugarri berezia FERMENTO EMANKORRA izatea da. HORIZONTE berriak bilatzen dituen gizarte eraldatzaileak izatea. Denbora pasa ahala, aldaketa politikarako dugun ahalmena eta eragina neurtzea beharrezkoa da. Honetarako, ondorengoan arreta jarri behar dugu:

- a) Egindako iradokizun, APORTACION ORIGINALES, alternatiba, aldaketa eta berrikuntzak. Baita ekintza guzti hauen eta benetan aurrera eramaten direnen arteko harremana.
- b) INICIATIVAK parte hartzeko kultura politikoa, hiritartasuna sortzeko, (Konpromiso Politikoa, 2.3, 5.2. eta 5.6. atalak) mugimendu soziala sortu eta mantentzeko (Konpromiso Politikoa 5.5. atala) edo gehiengo soziopolitikoaren erdiesteko (Konpromiso Soziopolitikoaren 5.5, 5.6 eta 5.7. atalak).



- c) INSTITUZIOEN politikarekiko harremana eta eragina (Konpromiso Politikoa 5.6. atala).
- d) Iritzi publikoa eta gizartearen balore nagusiengan lortutako eragina.
- e) Ahalmen kritikoa, ez CONFORMISTA eta arazoari aurre egitea.

5. Eskuzabaltasuna eta emate pertsonala

Kristau konpromiso politikoak konpromisozko erabakiak hartzea dakar. Hauek logika sozialaren aurka doaz, ziurtasuna, erosotasuna, norberaren interesaren lehentasunaren aurka. Batzuetan, korrontearen aurka bizitzeak arriskuak hartzea esan nahi du batzuetan. Esaterako, ekonomia, lanpostua, pertsonari lotutakoak. Honetaz jabetu behar gara eta gero eta gehiago emanez eta gero eta gehiago arriskatuz, erantzun behar dugu. Eskuzabaltasuna komunitatean CONTRASTAR behar da eta berrikusi eta ebaluatu egin beharrekoa da.

6. Asetze maila

Asetasun maila ikuspuntu desberdinetatik baloratu behar da. Biak bezain garrantzitsuak direla:

- a) Alde batetik, gure ideiekiko koherentzia eta iradokitako helburuen lorpena. Hau da, Mundua Jainkoari irekiago eta zuzenagoa izateko egin dugun lana.
- b) Bestetik, bizi izandako esperientzia eta garapen pertsonala. Bizitza egitasmoan gertatutako aldaketez ohartzean datza (bizitza familiarra, bizitza estiloa, espiritualtasuna) gure INPLIKAZIO soziopolitikoaren ondorio bezala eta, azken batean, fedearen txertaketa testuingurune sozialean..

Bilbao. 2003ko urtarrilaren 13a.